

NORENA DA SUDUR GORRI HORI?

Hortzak falta dituzten ahoetan irribarreek beste erritmo batean egiten dute dantza. Zuloa hutsune bihurtzen da eta hutsunea jolastoki; eta mingainak ezpainen gainean egiten du salto “Hemen nago, hemen nago!” esanez bezala. Zure irribarreak badu zerbait berezia. Hiruzpalau hortza falta zaizkizu, eta dituzunak ez dira ia ikusi ere egiten. Zure ahoa kobazulo bat da. Eta eguzkia bizi da bertan. Badu zerbait berezia zure irribarreak. Bai, eguzkia izango da akaso. Edo ezpainen dardara.

Gaur ere berandu. Bederatziak eta lau. Barkatzeko eta barkatzeko. “Umea. Sergio berandu etxeratu da eta ezin bakarrik dena gobernatu. Urduri zegoen gainera txikia. Barkatu e”, bakarren batek kasu egin dio, baina gehienek ez dute entzun Garazik esan duena. Aho-ezpain-matrail ariketak egiten ari dira. A eta A. “Mingainarekin ahots kordak ukitu behar dituzue” esaten die Pablok, “hitzak trabatzen zaizkigu bestela eztarrian. A eta A. Beste ahalegin bat!”.

Garazi lotsatu egin da aldagelatik atera eta antzerki-lagunak musu-masailak zimur-zimur eginda ikusi dituenen. Musu-masailak oker-oket. Besteak ikustean konturatu da bere aurpegiak ere tankera bera hartzen duela asteen behin gutxienez. Etxean ere saiatzen baita batzuetan mingainarekin ahots kordak ukitzen. Eta ia lortzen du. Hori iruditzen zaio berari, ia ukitzen dituela ahots kordak. Ez daki, ordea, ia hori zenbat milimetroko tartea den.

Gauza gutxi sinesten ditu Garazik, baina hori behintzat sinetsarazi nahi dio bere buruari, ia ukitzen dituela ahots kordak mingainarekin. Gogor entrenatzen du bere burua, izua baitio hitzak eztarrian trabatzeari. Panikoa.

“Barkatu e” errepikatu du pixka bat ozenago. Pablok, atzetik inguratu eta, esan dio gaurko saioa bukatzean itxaroteko “Bost minutu izango dira, pare bat kontu, ezer ez”. Atzetik pasa eta belarrira esan dizkio “Bost minutu izango dira” eta “pare bat kontu” eta “ezer ez”. Denak baxu-baxu. Hirurak jarraian-jarraian: bostminutuizangodiraparebatkontuezerez. Eta berak ulertu dio: lotsabehardageroberanduiritsietagaineraehunekoberrogeitamarraerezemateko. Eta Garaziri oihartzun egin dio ahosabaiko kanpandorreak ematekoematekoematekoemateko erdi ustel horrek. Eta hortik aurrera ez ahots korda eta ez kontzentrazio. Ordu erdi baino lehen aretotik atera da. “Barkatu e”. Beste azalpenik eman gabe, pausoari itzala janez, atera da Garazi aretotik. Inork ez dio ezer esan, ez Pablok eta ezta oholtzakideek ere, baina aretoko horma artean tentsio unea izoztu egin da eta entseguak ez du gehiagorako eman. Akabo. Gaur ere lotsak astindu beharrik gabe etxera. Gaur ere bai. Azken boladan gehiegitan ari da errepikatzen kontua. Denak isilik itzuli dira etxera bueltan. Eta jendea nazkatzen ari da.

Burua mugitzen duzu gora eta behera, gora eta behera, lurrikaraka bezala, eta horrek urduri jarri beharrean lasaitu egiten nau. Bi segundo eskaseko tartea izaten da. Orain banago eta orain ez nago. Bi segundoko tartea. Pauso bizkorra eramaten dut lanera bidean, baina egun batzuetan

moteldu egiten dut abiadura zure parera iristean. Bi segundo eta erdiko tartea lurrikara gozatzeko. Zure ingurua pitzaduraz betea dago eta ni indartu egiten naute egitera behartzen nauzun salto txiki horiek. Ez pentsa, arrakala horietako batean hanka sartzeko desiratzen nago halere. Aitzakia bat zure ondoan eseri eta epizentroa ezagutzeko. Gustura kontatuko nizuke atzo iluntzean antzerki entseguan gertatutakoa. Zure ondoan eseri eta hustu.

Berandu iritsi nintzen, bai; eta zer? Sergio ez dakit zertan dabilen azken aldian eta umearekin ez dut denbora ondo antolatzen asmatzen. Alde egin nuen, bai. Ezer esan gabe. Uste nuen Pablo atzetik etorriko zela. Edo Saioa bestela. Errieta egitera, kontuak eskatzera edo aurpegiatzera. Antzerki taldea izorratzen ari naizela. Eskertu egingo nuen halako zerbait. Baina ez zen inor etorri atzetik korrika. Ezer pasako ez balitz bezala jarraituko zuten entseatzen. "Total, Garaziren papera!" esango zuen bakarren batek.

Etxean aurkitu nuen nik antzerkia. Dramaren eta komediaren arteko muga-lerro arriskutsu horretan. Txikia negarrez eta Sergio ere negarrez. Ez, ez nion galdetu zer zuen. Zer zuten. Atzo neurekoi izateko beharra nuen, pixka bat egoista, pixka bat ustel. Komunean sartu, krisketa itxi eta mugikorrean musika jarri nuen. Rock-a. Rock gogorra. Suabe-suabe. Rock gogorra. Eta Pablok "Bost minutu izango dira, pare bat kontu, ezer ez" harekin zer esan nahi zidan ulertu arte ez nintzen komunetik atera. Laurogeita zazpi minutu. Gure ohean aurkitu nituen Sergio eta umea, biak lo. Lo seko.

Bart sofán egin dut lo. Begiak zabalik. Antzerkian ikasia: lo begiak zabalik egiten. Eta deskantsatu egiten da. Bai, nola-hala, baina deskantsatu. Norbaiti kontatu behar eta zuri kontatuko nizuke gustura atzo iluntzean antzerki entseguan gertatutakoa. Eta gero galdetuko nizuke gauero-gauero non egiten duzun lo. Hori jakiteko jakin-mina daukat. Non.

Baina, gaur ere salto. Bi segundo eta erdi eta aurrera. Ez naiz gelditu. Zure inguruko pitzaduretan salto egin eta aurrera egin dut. Salto horietako batean poltsikotik ihes egin didate umeak eta Sergiok eta Pablok eta Saioak. Ez, ez naiz berriro antzerki taldera itzuliko.

Hogeita bi urte aurpegia zimurtzen, eztarria korapilo bihurtzen, begiekin garrasi egiten. Hogeita bi urte izaten eta desizaten. Desegiten. Hogeita bi urte egin ditu Garazik antzerki taldean. Amonak esaten zion “Sorgin txiki, sorgin txiki”. Eta egun batean sorginarena egiten hasi zen. Amonak egiten zuen erratzarena eta Garazik sorginarena, eta biak joaten ziren hegan inor oraindik iritsi ez den zokoetara. Deslekuetan zabilzate esaten zien aitonak, *hortik ez, horra ez*. Eta Garazi eta amona hortik eta horra joaten ziren. Gero ikasi zuen katagorriarena egiten. Ahotsa txirristatik behera bultzaka erorarazten. Eta masailak gorritzen. Margo gorriarekin margotzen zizkion amonak masailak lotsa arrastoak disimulatzeko. Lotsa margotzen zion lotsa sentitu beharrik ez izateko. Eta horrela ikasi zuen tximeletak sabelean sentitu ordeztu, masailetan sentitzen. “Dena da errazagoa horrela” esaten zion aitonak, “horrela nik ere bai!”. Tipula

beharrik gabe Garazik begiak malkotan itsasotu zituen egunean amonak esan zion amari “Zergatik ez dun Garazi antzerki taldera eramaten?”. Eta atzo arte.

Sergio ezagutu zuen egunean ere antzerkia egiten ari zen. Beste mutil batekin. Gaur goizean esnatu eta Sergiorekin sukaldean topo egin duenean, hori izan da esan dion lehenengo kontua, ez dela gehiago antzerki taldera itzuliko. Sergiok muxu bat eman dio ezustean eta pijama praken poltsikotik atera duen pailazo sudur gorria jantzia du. “Nik hartuko dizut erreleboa” ez dio besterik esan. Eta joan egin da lanera.

Uste dut sudur gorria jantzita atera dela Sergio etxetik. Halako kontuak izaten ditu. Pailazokeria negargarriak. Gaur ere eseriko nintzateke zure ondoan. Antzerkiaz hitz egiteko, adibidez. Eta galdetzeko behe eskenatoki mugatu horretan zu zu zaren edo beste norbait antzezten duzun. Eskaleak ere antzezten du neurri batean, ezta? Ez dut esan nahi zure beharra itxuratzen duzunik, esan nahi dut hezur eta azal, mami eta errai publikoari begirakoa dela zure egitekoa. Nik ere obra batean eskalearena egin behar izan nuen behin. Mundua ez da jendeak uste duen bezain itsusia hor behetik begiratuta. Zapata zola zikin gehitxo gertuegi aukeran, baina hor bada zerbait... ez dakit. Zerbait. Zerbait. Zerbait. Pablok esan zidan egin nuena baino hobeto egin nezakeela. Eta nik sinetsi egin nion. Baina, antzerkian ez dago zerbait sinestea baino hanka sartze handiagorik. Keinuek sinesgaitzak izan behar dute. Memoriak ere bai. Dena distantziatik. Barruko distantziatik. Dena barrutik, baina ukitu gabe. Eta egun hartan Pablok egin zidan touché.

Akaso ikusi duzu noizbait hemendik pasatzen. Izan ere, beti pentsatu izan dut guk begiratzen ez dizugun proportzio berean ikusten gaituzula zuk. Zulatu egiten gaituzula. Eta zuloz beteta iristen garela lanera. Haize huts garela lanean.

Nik aspaldi ikusi zintudan lehenengo aldiz. Gerora begiratzen ikasi dut. Nire zuloetatik begiratzen dizut zuri. Ez pentsa, ez da batere erraza; zure begien imanak txilipurdi modukoak egiten ditu eta horrela ezinezkoa da begia begi truk arrantzatzea. Ez galdetu mesedez. Ez nuke jakingo zer erantzun. Ez dakit zergatik ez dizudan sekula txanponik bota. Gaur ia-ia. Baina, lotsatu egin naiz. Ez galdetu mesedez zergatik. Euro bat balio du nire lotsak. Eta zure zuloak.

Astebete egin du umeak gaixorik eta astebete egin du Garazik berandu iritsiz lanera. Aste honetan ez du ikusi egunero ikusten zuen eskalea eta larritu ere larritu du bere arrastoa galdu izanak. Damu du lehenago berarengana ez hurbildua izana, lehenago berarekin solas egin ez izana. Zer, noiz non, noiztik, norekin, zertarako eta zergatik. Izenik ere ez dio ezagutzen. Horretarako gelditu egin behar du. Horretarako berandu iritsi behar du lanera. Eta arazoak pilatzea litzateke hori: Sergio, Pablo, Saioa, umea, lana...

Bolada txarra pasatzen ari da. Bolada txarra esaten du jendeak. Masak. Galduta dabil Garazi. Hori baino ez zaio gertatzen. Betaurrekoak jantzita ere ez duela ikusten. Betaurrekoak jantzita ere ez zaiola ikusten duena gustatzen.

Eskerrak ez zarela urrutira joan. Bai, umea; gaixorik egon da. Ezer ez.

Sukar pixka bat. Uste nuen ez zintudala gehiago ikusiko. Ze poza! Eseri naiteke zure ondoan? Antzerkia egin genezake. Arazoak, buruhaustea, tripako-minak eta sudur gorriak truka genitzake. Elkarri izenik galdetu gabe. Badaezpada ere. Zertarako. Baina egon. Egon egin gaitzake. Elkarren ondoan. Lurrikaraka. Elkarren kobazuloan.